

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko 2016ko zerga ordaintzeko epea irekitzea

Begoña Ganzabal Zurbitu andreak, Urkabustaizko (Araba) udalerriko alkatea naizen honek, jakinarazten dut:

2016ko urriaren 1etik abenduaren 1era bitarteko egun baliodunetan, egun biak barne, ordaintzeko moduan egongo direla, borondatezko epean, zerga honen 2016ko ordainagiriak:

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

1. Ordaintzeko epea:

Borondatezko epea: 2016ko urriaren 1etik abenduaren 1era.

Premiamendu aldia: epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera, hala xedatzen baitute otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren, Arabako zergenaren, 28. artikulua eta Dirubilketaren Arautegiak, dagokion errekarguarekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak.

2. Ordaintzeko lekua eta modua:

Ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berebean helbideratuta badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Ordainketa helbideratuta ez dutenek borondatezko epean soilik ordaindu ahalko dute udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala gerora jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak, Urkabustaizko Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Izarra, 2016ko irailaren 26a

Alkatea

M^a BEGOÑA GANZABAL ZURBITU